



ILEROKO ALDIZKARI EDERGARIDUN AITA KAPUTXINOAK ZUZENDUA

—: || 11 Urtea || 1929'ko Uria || 130 Zenbakia. || :—

ERIARENTZAKO LITURGIA



zta lendabiziko aldia gai au *Zeruko Argian* ikutzen degula. Euskalefiko Apaiz jaun bati zuzendutako eskutitz (karta) eder mamitsu bat agertu zuan berontan Donosti'ar Gabriel A. agurgafiak gai ontaz.

Baño orduan askok etzenuten aintzakotzat artu gure asmoa. Ba-dirudi askok etzenietela igafi gure asmoari. Gutxi eskatu ziguten egin gogo genuen lana, ta eskatu zutenetan ere argi agiri zan, zer nolako lana izango zan eta nola argitara emango genuen etzutela ezagutu. Orduan eskuartetik utziari befiro ekitera goaz ba.

Liturgia beafean

Gure efi elizatik baztartzan asi zaigula edozeñek dakus. Guziok negafa begietan aitortzen degu, gero ta elizkoitasun gutxiago dagoala. Baño zergatik ote da? Ez ote da elizako gauzak ote egiten zaizkiolako? Ez ote da, elizkizunak zer esan nai duten eta Elizaren *Liturgia* ezagutzen ez duelako? Ori bakafik ez bada ere, Liturgiaren befi geixagorekin eta elizkizunetan leku geixago emanaz gero, ez al genezake efi elizkizunetara obeki ta gogotiago ekafi-erazi?

Esatera nijoana ezin beintzat ukatu. Euskalefiak Liturgiaren befi gutxi du, edo ezer ere ez du. Onen befiarik gabe, efiak ezin maitatu du Elizaren jairik; ja.

oietan elizan egiten dana gauza iluna ta ez adikofa da beretzat; jai oietako elizkizunak eta elizkizunetan egiten danak esan nai duena berak ezin igafi; urteko aldi bakoitzean Elizak derabilzkian jantzi, kantu, ta egikera, gau iluna bezela dira beretzat. (1) Eta gauza jakina da, buruan sartzen etzaigun gauzak, edo ezagutzen ez degunak, ezin berotu duela gure biotza.

Gure asmoa.

Ona, ba, gure asmoa. Gure efiari Liturgiaren beña eman nai genioke liburu txikitxo batzuetan. Nai diogu bere beña eman, puxkeka, puxketaka ta atsegintsu. Lan ori ondo egiteko, iru Aita aspaldian gertutzen ari zaizkigu. Atzerian gai onetaz argitara diran lanik oberenak bildurik, gaiak zain-zañetik eta oso ondo ikasirik dauzkate. Lan mamitsu, eñax eta samufak ari zaizkigu gertutzen.

Urte bakoitzear sei lan, beste ainbeste liburuxotan argitara emateko asmotan gera. Beraz datoñen urtean sei lan; baño sei oietako bat auferatu egin degu. Zertarako? Zuei erakusteko. Liburuxto onek amasei ofialde ditu; ta beste ofenbeste ituzte ondoreko bakoitzak.

Aldi bakoitzeko lantxoaren ondorean, gaiari dagokion eliz-kantua ondotik ezafiko zaio beti edo geienetan. Abesti edo kantu ori bere musika ta itzak, lateraz eta euskeraz. Lan guzia izki edo letra argi, lafi ta edefarekin, lenengoa bezelaxe emango degu aldioro. Ez aztu au dala Aita Santuaren gogoa ta ontarako izan zala igazko Eliz-musikako Batzafa Gzteiz (Vitorian). (2)

Merke izango al da?

Merka ta oso merke gero:

Artu naiko ba-zinuzkete:

Urteko sei etatik bana, urtean	0'50 pzt
Urteko sei etatik 10'na, urtean	4'50 »
Urteko sei etatik 25'na, urtean	10 »
Urteko sei etatik 50'na, urtean	18 »
Urteko sei etatik 100'na, urtean	30 »

Bat baño geiago zertako degu? esango dezute. Ofela jartzen degu Apaiz jaunak beren eliztaren artean zabaltzeko artu nai ba-lituzte ere eñaxtasun aundia goa emateagatik. Zenbat eta geiago artu, orduan eta merkeago jartzen: bai-diegu.

Bat ikusteko.

Ikusi nai al zenuke zer dan emen esaten dizugun lan ori? Eñi edo alderdi

(1) Gure Aita Santu Pio XI-gaenak Liturgiaz, Kantu Gregoriafaz eta eman dituen Letgetan bederatzigafan dio: «IX. Siñistunak elizkizunetan beren aldetik geiago egin dezaten, beñitu bedi kantu gregoriafa eñari dagokionerako. Beañezkoa da, alegia, siñistunak liturgiaren edertasunaz osoro egokiturik, elizkizunetan egotea ez arotzen artean edo ikusle mutuak ba-lira bezala;—prozesio nagusiak egiten diranean berdin;—eñarian boza txandatu bedi Apaizaren eta koruarekin edo *Schola cantorum* delakoarekin. Zorionez ori betetzen ba-da, ez gaitu geiago naigabetuko ofako ikusteko negargafi, eñiak ezer ez erantzuteak, edo mar-mar ixil eta nasia, otoitzik ezagunenai ere (ofela erantzuten bai-zaio), naiz elizkizuntzan esan edo eñiko izkuntzan esan.

(2) Gazteizko Eliz-musikako Batzafa nagusiak bere 6-gaen erabakian fededun guziei eskatzen die onelako liburuakin joateko elizara.



Ama - Birjiña Eñosariokoa.

bakoitzean **Zeruko Argia**'k daukan Ordezariari lenengo ikusgafi atera deguna utsean bialiko diogu, ta ofi eskatu ikusteko ta nai dezutenak gerori ere bai ta ar-pidedun eskatzen digunari utsean bialiko diogu lenengoa. Euskaleriko Apaiz-Aita (Pafo) guziei ere utsean bialtzeko asmoa degu lenengo atera deguna.

Urte bakoitzeko seiretarako arpidea egin bear da edo batekin, edo 100-ekin edo nai diran ainbatekin; baño urte guziko.

Datofen urteko **Zeruko Argia**'ren urte-sariarekin batean ordaindu bear da «Eñarentzako Liturgia»-rena ere, nai ba-da, artu. *Idazleak.*

- Legortea -

Ba-datoz baseritarak,
gizon sendo ta andre zarak
goiz-goizean elizara...
bete da eliz txikia...
ezkilaren ots bizia
zabalduta da emer ta ara.

Aldare-nausi-aurrean
asi da otoitz luzean
apaiz jauna belauniko.
Eria otoitzka dago:
"Ez gera, Jauna, geiago
Zure kaltez ibiliko".

Asi da prozesioa...
Gurutzea aurretik doa
ta San Ixidro ondoretik:
banaka mutil ta aitonak,
erdian eliz-gizonak,
andreak beriz, atzetik.


Buruak makur gizonak,
erdi-negaraz amonak,
otoitzka apaiza kantari:
"Entzun gaur gure eskaria;
aren, bear dun euria
biali zure erriari"...

Ba-doz baseritarak,
gizon sendo ta andre zarak
baserieta lanera:
pozik eta alai dijuaz
itxaropenaren suaz,
ume zintzoen antzera...


Jauna, urutitik etori dira
batean otoitz-eitera,
ta aien otoitza entzute-aren,
erdian Zu egon zera.
Ikusi zaitut antxen erdian
Artzai onaren antzera.
Itxaropena Zugan jarita
itzuli dira etxera.

Aldendu, bada, zure zigora,
txikien Jaun biozbera,
ta atoz lenbailen gure soroen
egari au asetzera.

Jaregi'tar Luis.



Beroeta



ORI USTEKABETAKO SOLDADUA...

Ez du denbora asko orañik nekazari baten semia Iruñara etofi zala bere soldadutza betetzera...

Ta Katedraleko Apez Jauna oartu zan eta bai poztu ere gogotik, egunero, gure Jaunari bere ikustaldia egitera joaten zanian, afatsaldeko ordu batatik iruetaño aldare nagusiaren afeuko burni-afajaen ondoan tente tente soldadu gazte bat ikusten zuelako.

Ezin asmatuz Apez Jaunak, zertaz egoten ote zan antxen ain geldi eta ainbesteko begiramenduaikin gazte ura, adixkide agintari bati kontatzen dio gertatzen dana...

Alako batian ara non eldu dan Katedralera Agintari Kapitana Apaiz Jaunarekin egotera, eta sartzen dira biak Katedraleko sakristian itz gitera..

Oraintxe ordu bata jo du, esaten zion Apaiz Jaunak, eta ikusko duzu zeñen zintzo dagon gure soldadua elizan...

Eta ikusteko burua atera zutenian, antxen zegon soldadua tente tente aldaarearen ondoan...

Afiturik Kapitan agintariak: «Nere buruzaia da» esaten dio Apaiz Jaunari.

Eta elizara utera ta ixil ixil esaten dio soldaduari: «Bañan zer ari zera emen garai onetan?»

«Nere Kapitana, erantzuten dio gazteak: ementxe nago bi orduz egunero Jangoikoaren zai. Munduan zer gertatzen dan ikusita, biotza sutzen zait.

Gure Agintariak ibili bear duten leku guztietan ikusten ditut non nai «zentinelak» jañirik. Eta esaten diot nere buruari: Ez al da bada Agintari nagusienak bañan geyago Jangoikoa? Eta ez du iñor ere «zentinela» egiten dionik!

Ofengatik artu det asmo au: lanik gabe arkitzen naizenian, bi orduz Jangoikoaren zai egotea. Eta sinis zadazu: sekulan ez naiz ofen pozik egon...»

Ori edertasuna! Zorioneko soldadua! Nondik jakingo zuen gure soldadu Napafak bere Jangoikoaren zai ofela egoten, bere guratsoak txikitatik erakutsi ta ezpada?

Irugafendafak! Erakutsi gaztetxoei beti zuzenbidea. Ongi erakutsia non nai azaltzen da....

Zeñen ona den Ama-Birjiña

GIZON sinismen gabe bat Paris'era zien bein. Ongi izateagatik edo erabidez, galde egin zion emakume elizkoi bati, ea zerbait nai zuan uri aundi artarako.

—Bat bakaña eta eñaxa; baño bildur naiz ez ote zaizun on izango.

—Aski da zuregandik etortzea, andrea, nik bera biotzez egiteko.

—Ain maitagafia zeranez, joaten altzara nere orde z ikustaldi bat egitera eta «Agur Mari» bat esatera «Notre Dame des Victoires» deritzaion elizara.

Joaten da Paris'era, egundu zen an egun seil bat, eta andik abiatu baño egun bat lenago, sartzen da eliza artan, beste guziak bezela boneta kentzen du, belaunikatzen da belaun batekin badere, eta erdi lotsatuta bezala, esaten du «Agur Maria» nolabait ere (aspaldian etzuan eñezatu). ¡Ona da gero gure *Ama*! Bat batian barne guzia nasten zaio; bi belaunak lufera botatzen ditu, eta negafari ematen dio. ¿Zer gertatu zan? Sinismenak argitu zuan orduntxe biotz ura, eta ardi galdu ura arkitu zan artaldean, «Ama Artzain Onaren» ondoan.

Lenago aitormen edo konpesio eder bat egiñaz, eliza artan bertan Jauna bere biotzean artu zuan.

A'tar I. M. O. M. Cap.



San Pedro auzoko zubia (Oñati'n).
(Goiko aldetik ikusia.)

Nere anai, Leitza'ko Apez organulariri

AGUR MARIA

(Euskaleñi'ko Prozesiotarako)

Lizaña'ko I. A'k.

Andante

Altus Tenor Bassus

p A - gur Ma - ri - a gra - zi - az be - te - a, Jau - na

da zu - re - kin *mf* bede in - ka - tu - a ze - ra zu andre guzti -

rit. ... zure sabele - ko fru - tu -


en ar - te an; e - - ta bedeinkatu - a fru - - tu - -

a, Je - - - sus Santa Ma - ri - a, Jaungoiko - a - ren A - ma

a, Je - - - sus

Organua

o-toitz e-gi-zu gu pe-ka-ta-ri-en al-de o-rain e-ta gu-







-re e-ri-o-tze-ko or-du-an. A-men





Txistu

Maestoso







Aita Gurea



betor gugana zure eñeina



Aozko aitorpenaren eginbidea.

(Azkena)



AZTIGU 'maitekor 'bat artu degu ilabete onetan. Onela dio: Aita, aitortu bear ditugun pekatu motaz eta beren aundigariaz lengo ilabetean ziona, argixago esango ba-ligu.»

Baita pozik ala ere. Aitortu bear ditugun pekatu motaz esan bear dizuet: Zenbat pekatu mota egin, ainbat aitortu bear.

Nola ezagutu ordea zenbat pekatu mota egin ditugun?—Ona, ba.

Pekatu mota bereziak dira, beroiekin austen diran onbide (birtute) ariora. Geroztik bi onbide (birtute) austen ba-dira, bi pekatu mota; iru austen ba-dira, iru pekatu mota. Jaian lana egin eta gurasoen esanak austen dituenak, bi onbide, erlijioarena ta esangiletasuna austen ditu, geroztik bi pekatu mota ditu. Siñisteko egi bat ezpadezu siñisten, gauza onik Jaungoikoa-gandik ezpadezu itxoiten eta Jaungoikoa begietan artzen ba-dezu, iru onbide (birtute) ausiko dituzu, siñismena, itxoipena ta goimaitasuna. Geroztik iru pekatu mota izango zenuzke.

Baditeke ordea, egite batean bi onbide austea. Gurasoak esana ta agindua autsiz lanean aritzen ba-da gazte bat igandean, ofek bi onbide batean austen ditu, esangiletasuna ta erlijioa; jai-egunean mezara beafean lapuřetara dijoanak ere bi onbide batean austen ditu, erlijioarena ta zuzentasuna. Geroztik auker biak bi motetako pekatuak egite beran dituzte. Argatik aitortzean galdutako meza bakarik esango ba-lute, egin zuten pekatuaren erdia aitortuko lukete. Biak bear dituzte ba aitortu. Oar zaitez gañera bi onbideak austean, nola austen dituzten egite berarekin bi agindu edo mandamentu. Argatik bi utsak aitortu beafa.

Onbide bat bera ere alde askotara ausi diteke. Eta onbidea (birtutea) austen duten pekatu oiek mandamentu berezietan debekaturik daude. Edozein iltzea, edo edozein ostutzea ta izen gaiztoa bidegabekerian jartzea guziak alkarganako maitetasuna austen duten pekatuak dira. Iruak onbide bera austen dute, baño alde askotatik. Eta iru pekatu oiek debekaturik daude boskafen, zazpigařen eta zortzigaren aginduetan. Argatik au ere egia da, zenbat agindu ausi, ainbat pekatu mota aitortu beafak.

Onbide, birtute bat bera ere *geiegiz eta gutxiegi* ausi diteke. Eta bi utsak izan ditezke lařiak. Eskuzabala izatea onbide (birtute) da. Baño eskuzabalegia izatea pekatu da; esku-estu edo zur (zimura) izatea ere bai. Onbide ofen bi baztařetako utsak, bi pekatu mota dira ba. Siñismena onbide da; siñeskaitez izatea utsa; baita siñetsiegia izatea ere. Ofar ere bi pekatu mota, siñeskaizkeria ta siñiskeria edo on ez diran gauzetan siñetsia izatea.

Onbide bat bera *bi eginbide bereziaz gordetzera bearturik bagau-
de*, bi pekatu mota izango genuzke. Onela garizumako ostiralean aragia
jango ba-lu bere gogozko beña edo boto batez ostiraletan aragirik ez jatera
beartu danak, bi pekatu mota izango lituzke; bata kristau guziok beartzen
gaituen legea austeagatik eta bigafena berak arturik daukan eginbidea aus-
teagatik. Berdin gertatuko litzaioke egunero meza entzuteko eginbidea ar-
turik daukanari, igandean naita galduko ba-lu meza.



San Pedro suzoko Zubia (Oñati'n) beko aldetik ikusia.

Pekatuaren andigariak. Aitortu bear ditugun pekatuaren aundigariak ikasi
dituzu? Oraintxe esan dizut, ba, bat eta lentxago bestea. Kristau bakoitzak
izan dezakegun eginbide edo obligazio bereziagatik batzuen pekatua bes-
teana baño aundiagokoa izaten da. Gurasoak bere aufai ondo erakusteko
eginbidea dauka. Gurasoak aufai gaiztakeria erakustean, besteak alako bi
aldiz pekatu aundiagoa egiten du ba. Birauak bere aufari erakusten ba-diz-
kio, iru motetako pekatua egingo luke gurasoak batean. Birauak bere aoan
beste edozeñenean bezin pekatua aundia dira. Oiek aur bati erakustea, beste
edozeñen pekatua bezin aundia izango litzeke beretzat. Baño beste edoze-
ñena baño aundiagoa da ofentzat, aur ofen guraso delako. Ona, ba, nondik
eldu zaion ofen pekatuari bere aundigaria, aren guraso izatetik. Zergatik?—
Gurasoak eginbide gogofa daukatelako, beren aufai ongi erakusteko. Gogo-
an artu ba. Gaiztakeri bat ez egitera bi aldetatik bearturik dagoanak, batetik
bearturik dagoanak baño uts aundiagoa du; eta onek uts bat aitortu bear-
duen lekuan, afek aitortu bear bi, edo berdin dana bere pekatuaren aundiga-
ri aldagaría ere bai.

Bere gofotoagatik izen gaiztoa jartzen ba-dio etsaiari edo bei bat elba-
fitzen ba-dio, gofotoaren aldagaríak dira izen gaiztoa jartzea ta beia elba-
fitzea. Baño ezta naikoa gofotoa izan zaiola aitortzea, baizik gofoto ofek
ekafi dituen bi umeak edo beste bi gaiztakeriak ere bear dira aitortu. Ofá

ba zer diran pekatuaren aldagariak, edo pekatuaren aundigari aitortu bear diranak.

Aitorpenaren osotasuna. Aitorpenaren osotasunak beartzen gaitu pekatu lafi guziak azkeneko motetaraño aitortzera ta mota bakoitzetatik zenbat ditugun esatera.

Baita aitorpenaldi bakoitzetakoak Apaiz berari esatea ere.

Osotasun au ezta austen:

1.^a Aitortzekoan pekatu lafien batez aztutzeagatik eta aztutakoa beste Apaiz bati esateagatik.

2.^a Aundiak aüfetik bati, ta txikiak beste bati esango ba-litzaizkio.

3.^a Pekatu txikiak diranean, guziak ez aitortzeagatik.

4.^a Gaxotasunaz edo aitorpena bi txangotan egiten ba-da.

Aitortzaren osotasuna austen da:

1.^a Aitorpenaldi edo konfesaldi bateko pekatu lafietatik batzuek Apaiz bati ta beste batzuek beste bati aitortzen ba-zaizkio.

2.^a Lotsaz edo bildufez ixiltzen edo ixkututzen ba-da pekatu lafiren bat.

3.^a Pekatua erdizka aitortzen ba-da, edo berd'n dana esan ditugun pekatuaren aldagariak ixiltzen ba-dira.

Aitortzaren osotasunak ez gaitu beartzen:

1.^a Oiek idazteia edo eskribitzera.

2.^a Apaizaren izkuntza eztakigunean besteren bidez aitortzera ere ez, egin diteken gauza da baño.

3.^a Besteak gure aitorpena entzun bear ba-lukete, Apaiza sofa dalakoz edo.

4.^a Aitortzekoz Apaizaren ezaguna salatu bearko genukenean; ala ere aitortu genezaiokie gure pekatua; baño laxter beste ezagutzen ez duenari aitortu dezaiokegunean, ixildu ditekete. *Intza'r Damaso An. O. M. Cap.*



Larañaga basetxea (Oñati'n)



Carcassonne'ko España'rak Lourdes'en

Aita Euskaldun bat Frantzian

Ba-dakizute gure irakurleok Aita Euskaldun bat daukagula Carcassonne'n España'fai zeruko bidea erakusten. Uri ortan berean lau mila españar ba-dira. Probintzi artan 25.000'taraño ba dira. Auen artean daukagu Gaintza'r Ugo-lino, gaben-gaberdi lana egiten, Jesukristoren eta Elizaren befi pixkat bedere ikasiaz naiez. Lenengo urtetan oso lan latza izan du. Baño ba-datozkio len baño obekixago eskura. Igaz befogei ta amar bat lagun Lourdes'era eraman zituen eta misio batek ainbat, edo on geiago egin omen zien peregrinazio afek españafai. Askok aitua bai-zuten, Apaizak itxuturik dauzkatena bestek eztutela erlijiorik. An orde, ainbat aberats eta ainbat mila ta mila jende alde guzietakoak alako siñismenaz otoi'tz egiten ikustean, askori biotza bete zitzaien eta beren misiolari euskaldun ofen esanera gogotiago jartzen asi ziran. Aurten misio bat eman diote Kaputxinoak eta gero Lourdes'era eto-fi dira 100 lagun.

Ara joan diran geienak aitortu ziran lendabiziko egunean eta iru egune-tan Jauna artu, bai emakumezkoak, baita ere gizonezkoak. Askok igo dute mañadi (eskañera) santua iru aldietaraño belauniko. An ziran gazteak, mutil eta neskatx geienak, itza eman dute, eztirala urte guzian zine ta teatroetara joango, arako bear luketen diruaren bidez datofen urtean ere befi'z Lourdes'era itzultzeko. Etxe askotakoak erakutsi diote Aita Gaintzari igandero bi franco emateko gogoa, datofen urtean ere befi'z Lourdes'era eraman ditzan. Irurogei lagun izango dira igandeoro diru ori ematen ari diranak. Lourdes berean gogoratu zitzaien Ama-Birjiñaren irudi bat beren elizkizunetarako erostea. Aita Gaintzak asmoa ontzat eman eta biramonean beren dirutik 240 pezeta Aita Ugolinoren eskuetan jafi zituzten. Aldare bat polita baño poli-tagoa egin diote, Lourdes'ko arkaizpearen antzekoa ta Agoztuaren amabos-tean bedeinkatu zuten eta bere auean meza ta elizkizuna egin.

Neskatxekin abeslari sail bat ondo erakutsia dauka ta pozaren-pozez biltzen dira elizkizunetara.


Urte ontan españafak bizi diran amabi lekutan aritu da Aita Ugolino miosioak ematen. Lan latza, baño lan bikaña derama, ba, gure Aita maite onek.

Aita Hontoria'k *El Mensajero Seráfico*-an azkeneko Garagañan ona zer zion Aita Ugolino'ren lanaz: «Bonsejour (Gotzai) jaunak biotz-biotzez maite ditu espanafak eta aien buruzagi gure Aita Ugolino Gaintzafa dauka. Onek apostolu-gixan egiten duen lana, bertatik ikusi bear da, ez litzeke gauza efa-za izango-ta onek egiten duena ongi adieraziko luketen itzak arkitzea. Bere izena guzian agotan dago eta bera maitetasun efespetokoaz inguratutik. Aren lan sutuari ta ark emandako otsai zor zaie emen dauden espanar afoztuak Misiora biltzea, ainbeste maite dutelako ta ain agurgaritzat daukatelako Aita Ugolino.»


Aguztuko Andre Mariaren egunean irurogei ta amabost espanafek artu dute Gure Jauna. Ta Carcassonne'tik kanpora matsu biltzera joatean, nega-fez agur egin zioten askok gure Aita oni.

Ar'tar A.

Ai txori gaxoak!




Zizare bat agoan,
Eldu da txori-ama




Kabitzoan umeai
Jatera ematera.



Zein pozik ari diren
Txorikumeak jaten!




Baña katu maltzafak
Ikusi du txoria.



Ixil-ixil igo da
Txoriaren kabira



Artu ta jaten ditu
Txori ama ta umeak.



Alkartasun edera.

Elkartasun edo kongregazio au Paris'en Prevost Aita'k sortua da. Orduan Aita Santu zan Leon XIII'gañenak oso itz edera'k izan zituen, Prevost Aitaren asmoak jakin zituenen. Elkartasun ontan apaizak bakarik sartu ditezke ta apaizai al dan guzia laguntzeko egiña da. Egun osoan Jauna agirian eukitzen dute. Elkartasuna apaizai laguntzeko egiña dalako, etxeak egiten ditu, apaiz gaxo, zar eta lanik egin ez dezaketanak artzeko. Alde batetik bestera dijoazen apaizak ere artzeko etxeak ba-ditu eri aundietan. Paris'en duten etxetik 150 Kardenal eta Obispo ta iya 6.000 apaiz igaro dira. Azkenengo jayetan Erroma'n duten etxean eun bat euki dituzte. Elkartasunak sei etxe ditu, iru Frantzian eta beste iru Italia'n. Europa ta Amerika'ko Obispo batzuek beren goterkietan (diócesis) ikusi nai lituzkete.

Iya bi miloi emaitza (regalo).

Oso gauza edera Ejipto'ko gobernuak egin duena. Suez'ko lufaldetan Aita Santuak daukan Ordezko batek Eliz-nagusia jaso nai du, baño ortarako lufa bear. Aita Santuaren Ordezkoak erosi nai izan dio ango gobernuari. Gobernuak saldu dio elizarako bear zuen lur guztia Port Said'eko ondartzan, baño emaitza edera egin nai izan dio. Lur onek berez balio zuena emateko, Aita Santuaren Ordezkoak frankotan 2.250.000 bearko zituen; gobernuak ordea askoz gutxiago eskatuko dizkio, 406.250 franko. Eliza beri au Ama Birjiñari jasoko zai: «Munduko Erégiñaren» izenarekin.

Sukar ustela (tifus) ta gosea Txina'ko misioetan.

Txina'ko alde batzuetan gose ikaragafiaren atzetik sukara ustela etofi zaie mixiolariari ta batzuek eraman ditu. Tsinchow esaten zaion erian, mixioko 14 jo ta 7 il dira. Jorailaren erdian Aita Pedro il zan; 25'an sendagilearen ematzea, Drexler andrea. Sendagilea bera ere gaxo erori zan, baño, bere indarai eskerak, atera zan. Pentekostes aufegunean Sabas Anaia il zan. Pentekostes bigarren egunean Sigisberto Aita, mixioko nagusia ta andik bi egunera Gabriel Aita. Egun batzuek geroago beste bi monja ere eraman zituen gaitz berak. Oso kalte aundia izan du ba Kansu'ko mixioak, ez bakarik il diranak mixiolari bikañak ziralako, baita ere gauza zaila dalako oiek utzi dituzten tokiak betetzea.

Sugaretan Jaunaren bila.

Londres'en monjatxo batentzako iletak edo proguak egin dira ta eliza jendez bete-beterik egon da. Mota guztiko izparingi edo periodikuak ere, katolikoak eta ez katolikoak, monjaren eriotzaz asko itz egin dute ta bere izena goi-goian.

jari dute. ¿Zer dala ta? Monja au beste lagunakin aur-etxe batean zegoen eta bertako nagusia zan. Oso pozik zeuden aur gaxoak beren monjakin eta etzuten uste noski inork nastu bear zienik beren zoriona. Uste baño lenago etorri zan. Egun batean sua sortu zan, etxe guziaz jabetu ta dana ondatua gelditu zan. Monjak al zuten guzia etxetik ateratzen ari ziranean, Jauna aldarean zegoela gure monja au oroitu zan. Sugařak ikaragařiak, kea itobearkoa zan eta etzekien aldareraño elduko ote zan. Abiatu zan ala ere; baño gaxoa etzan gei-ago agertu. Guzien begietan edeřa izan da bere eriotza ta guzien aotan ibili da bere Jaunarenganako maitasun aundia.

Ejercicioak egiten dituztenak Europa'n.

¿Zenbat ote dira? Oitura au Frantzia'n etzan aĩn eřaz sartu, baño gero asko zabaldu da. 1913'gařen urtean, gizonentzako 65 etxe ta emakumentzako 50 irikita zeuden. Orain urtero ba omen dira iya 20.000 ejercicioak egiten dituztenak.

Beljika'n 1891'gařen urtean asi zan oitura: 1906'gařenean baziran etxeak langileentzat, 6 gizonekoentzat eta 14 emakumezkoentzat; 1911'gařenean 10 mila gizon eta 15 mila emakume egin zituzten.

Alemania'n ere asko egiten dira. 1877-1914 urtetan eři batean 44 mila gizon bildu dira; emen bertan 1913-1914 urtetan 50 mila emakume: Altötting eřiko Kaputxinoen etxean 1893'tik 1923'raño gizon eta emakume artean 121 mila lagun bildu dira.

Olanda'n oitura au asko zabaldu da; 1906'tik 1923'raño 320 mila katolikok egin dituzte beren ejercicioak. Olanda'k bi miloi edo katoliko ditu ta urtero bi miloi oyetatik biltzen omen dira ejercicioak egiteko 17 mila gizon eta 12 mila emakume.

Urřilean España osotik Eřoma'ra egingo diran Peregrinazioak.

Datořen Urřilarako gertutzen ari dira España osotik peregrinazio asko Eřoma'ra. Gotzai guziak deia kristauei egiñik, alde geienetatik katoliko ugari dira, arako izenak eman dituztenak. Nai zaio Aita Santuari bere apaizgoko beřogei ta amargařen urteagatik zorion-aguřaldia egin eta bere Eřegetza Italiařak eza-gutu dutelako ere poza ta atsegiña erakutsi.

Napařoa'ko Gotzaiak eta Gaizteizkoak ere Agofaren lenengo Boletĩnetan deia beřitzen digu beren eliz-barutitafai ta joateko gogoa dutenak izenak emateko ordua da. Urřĩan aurfena aterako dan peregrinazioan joango da *Primado Kardenal* jauna ta azkena itzultzen danarekin itzultzeko asmoa du. Artean dijoazen talde guziak Aita Santuagana berak aurkezutzeko asmotan da. Jakiña da, oraingo bere Eřomara aldian jantziko diola Aita Santuak Kardenalen Kape-lua. Eřoma'ra joan gogořdezutenak zeren eliz-barutietako Gotzaitegietan bear dituzuen beřiak eskatu edo bestela Madrid'era; Infantas 42; Oficina Central'era.



Ilabete onen amairugařen egunean meza bat emango da «ZERUKO ARGIAREN» irakurle ta ongile guztien alde, Antonio Santuaren aldarean.